

AGREE II TRESNA

PRAKTIKA KLINIKORAKO
GIDEN EBALUAZIO TRESNA



AGREE II

TRESNA

AGREE Hurrengo Urratsen Partzuergoa
2009ko maiatza



KOPIA- ETA ERREPRODUKZIO-ESKUBIDEAK.

Dokumentu hau nazioarteko lankidetzaren emaitza da. Kopia egitea eta bere erabilpena honako kasuetan baimenduta dago: heziketa-xedeetarako eta praktika klinikoari buruzko ebaluazio kritikoa egin eta kalitatea bermatzen duten programetarako. Ezin erabil daiteke, berriz, merkataritzari edo marketinari lotutako asmoak baldin badauzka.

Eskuragarri badago, Ingelesezkoa ez den eta onartuta dagoen AGREE II Tresnaren beste hizkuntzetako bertsioak erabiliko dira. Nahi duenak beste hizkuntzatan itzul dezake, baldin eta AGREE Research Trust-ek duen protokoloari eusten badio.

ERANTZUKIZUN-MUGAK.

AGREE II Tresna gida garatzen dutenentzat eta gida horren kalitate metodologikoarentzat diseinaturik dago. Egileak ez dira AGREE Tresnaren bidegabeko erabilaren erantzule egiten.

© The AGREE Research Trust, 2009ko maiatza.

© Euskararen bertsioarena: Osteba. Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza

DOKUMENTU HAU AIPATZEKO MODUA:

AGREE Next Steps Consortium. Appraisal of Guidelines for Research & Evaluation (AGREE) II Instrument. <http://www.agreertrust.org>

AGREE Next Steps Consortium. AGREE II. Praktika Klinikorako Giden Ebaluazio Tresna 2013ko Uztaila. <http://www.osakidetza.euskadi.net/osteba>

FINANTZAKETA:

AGREE II Tresnaren garapena Osasun Ikerketarako Kanadako Institutuaren (FRN77822) diru-laguntzari esker sortu zen



TRESNARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO, HONA HEMEN KONTAKTUAK:

AGREE II Proiektu-Bulegoa, agree@mcmaster.ca

AGREE Research Trust-eko web orria www.agreertrust.org



AGREE HURRENGO URRATSEN PARTZUERGOKO KIDEAK

Melissa C. Brouwers doktorea.

Ikertzaile Nagusia, AGREE Next Steps Consortium McMaster University, Hamilton (Ontario, Kanada)

Partzuergoko kideak:

GP. Browman doktorea, *British Columbia Cancer Agency*-Britainiar Kolunbiako Minbizi-Agentzia-, (Vancouver uhartea, Kanada.)

JS. Burgers doktorea, *Dutch Institute for Healthcare Improvement (CBO)* -Osasunaren Hobekuntzarako Institutu Holandarra-, (Herbehereak).

F. Cluzeau doktorea, AGREE Research Trust-eko presidentea; *St. George's Hospital Medical School* -St. George Ospitaleko Medikuntza Eskola- (Londres, Erresuma Batua).

D. Davis doktorea, *Association of American Medical Colleges*, -Estatu Batuetako Medikuntza Eskolen Elkartea- (Washington, DC, EAB.)

G. Feder doktorea, Bristoleko Unibertsitatea, (Erresuma Batua)

B. Fervers doktorea, Cancer et Environement, Centre Leon Berard, Frantzia

I. Graham doktorea, *Canadian Institutes of Health Research*, (Kanadako Osasun Ikerketarako Institutua) Ottawa, (Ontario, Kanada)

J. Grimshaw doktorea, *Ottawa Health Research Institute* -Ottawako Osasun Ikerketarako Institutua- Ontario (Kanada).

SE. Hanna doktorea, McMaster Unibertsitatea, Hamilton (Ontario, Kanada).

ME. Kho anderea, McMaster Unibertsitatea, Hamilton (Ontario, Kanada)

P. Littlejohns doktorea, National Institute for Health and Clinical Excellence, London, EB

J. Makarski anderea, McMaster Unibertsitatea, Hamilton, (Ontario, Kanada)

L. Zitzelsberger doktorea., Canadian Partnership Against Cancer, Ottawa, Ontario, Kanada

EUSKARAZKO BERTSIOAREN ARDURADUNAK:

Osteba, Osasun Teknologien Ebaluaziorako Zerbitzua. Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza

Osteba-san@ej-gv.es

<http://www.osanet.euskadi.net/osteba>

Tel: +34945019250

Fax: +34945019280

KOORDINAZIO EDITORIALA:

Eva Reviriego Rodrigo anderea, Osteba. Osasun Teknologien Ebaluaziorako Zerbitzua. Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza

ITZULTZAILEEN LANTALDEA:

Eunate Arana Arri doktorea, Gurutzetako Ospitaleko Ikerketa Unitatea. Osakidetza. Euskadiko Osasun Zerbitzua.

Iñaki Gutiérrez-Ibarluzea doktorea, Osteba. Osasun Teknologien Ebaluaziorako Zerbitzua. Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza

HEDAPEN. http://www.hedapengs.com/6_traduccionen_es.html

ELHUYAR. <http://www.elhuyar.org/hizkuntza-zerbitzuak/es/ltzulpen-zerbitzuak>

IKUSKATZAILEAK:

Gaizka Benguria Arrate jauna, Osteba. Osasun Teknologien Ebaluaziorako Zerbitzua. Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza

Itziar Etxeandia Ikobaltzeta doktorea, Osteba. Osasun Teknologien Ebaluaziorako Zerbitzua. Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza

Arritxu Etxeberria Agirre doktorea, Hernaniko Osasun zentroa. Osakidetza. Euskadiko Osasun Zerbitzua.

Diego Rada Fernández de Jauregi doktorea, Aurretiko Medikuntza eta Osasun Publikoa Departamentua. Farmazia Fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea.

I. SARRERA

| | | |
|------|--|----|
| I. | Laburpena | 7 |
| II. | Erabiltzailearen eskuliburua: AGREE II Tresna erabiltzeko jarraibideak | 11 |
| III. | Funtsezko Baliabideak eta Erreferentziak | 11 |

II. ERABILTZAILEAREN ESKULIBURUA: AGREE II TRESNA ERABILTZEKO JARRAIBIDEAK

| | | |
|------|--|----|
| I. | AGREE II erabiltzeko nola prestatu | 15 |
| II. | AGREE II Tresnaren egitura eta edukia | 15 |
| III. | Puntuazio eskala eta erabiltzaile eskuliburuaren atalak | 16 |
| IV. | AGREE II Tresnaren puntuazioa | 17 |
| V. | Ebaluazio Orokorra | 18 |
| VI. | Eremu bakoitza puntuatzeko jarraibideak | |
| | 1. <i>eremua: Norainokoa eta Helburua</i> | 19 |
| | 2. <i>eremua: Inplikatuaren Parte-hartzea</i> | 23 |
| | 3. <i>eremua: Gida egiterakoan erabilitako zorrozatasuna</i> | 27 |
| | 4. <i>eremua: Aurkezpenaren Gardentasuna</i> | 36 |
| | 5. <i>eremua: Aplikagarritasuna</i> | 40 |
| | 6. <i>eremua: Argitaratzeko Askatasuna</i> | 45 |
| | <i>Gidaren Ebaluazio Orokorra</i> | 51 |

III. AGREE II TRESNA

| | | |
|------|---|----|
| I. | 1. eremua: Norainokoa eta Helburua | 55 |
| II. | 2. eremua: Inplikatuaren Parte-hartzea | 56 |
| III. | 3. eremua: Gida egiterakoan erabilitako zorrozatasuna | 57 |
| IV. | 4. eremua: Aurkezpenaren Gardentasuna | 60 |
| V. | 5. eremua: Aplikagarritasuna | 61 |
| VI. | 6. eremua: Argitaratzeko Askatasuna | 62 |
| VII. | Gidaren Ebaluazio Orokorra | 63 |

I. LABURPENA

i) AGREE II Tresnaren asmoa

Praktika klinikorako gidak (gidak) modu sistematikoan garatutako gomendioak dira. Gomendio horien bidez, egoera kliniko zehatzetan egokiak diren erabakiak hartzeko laguntza ematen diete pazienteari eta profesional sanitarioari (1). Halaber, gidek osasun-politikaren heziketan eginkizun garrantzitsua izan dezakete (2,3), eta osasun-arretaren eremuan zeharreko gai ezberdinak (hala nola, osasunaren promozioa, baheketa (screening) edo diagnosis) barne hartzeraino garatu egin dira .

Gidaren etekin potentziala bere kalitatea bezain ona da. Gomendioen inplementazio arrakastatsu batetarako garrantzitsuak dira metodologia egokiak eta estrategia zorrotzak erabiltzea giden garapenean, (4-6). Kalitatea guztiz ezberdineko gidak daude, eta batzuek ez dituzte oinarriko estandarrak betetzen (7-9).

Praktika Klinikorako Giden Ebaluazio Tresna (AGREE) (10) giden kalitate-aldakortasunaren inguruan aztertzeko asmoarekin garatu zen. Horretarako, AGREE tresnak gida baten zorrotasun metodologikoa eta gardentasuna ebaluatzen du. Jatorrizko AGREE tresna hobetua izan da eta AGREE II izan da emaitza. Bertan, Erabiltzailearen Eskuliburua aurki daiteke (11).

AGREE II -aren helburua ondorengo esparruetarako markoa eskaintzea da:

1. Giden kalitatearen ebaluaziorako,
2. Gidak garatzeko estrategia metodologikoen eskaintzan; eta
3. Gidetan zein informazioa eta nola jaso beharko litzatekeen ezartzea.

AGREE II tresnak jatorrizkoa ordezkatzan du tresna egoki gisa, eta osasun-zaintzaren hobekuntzara zuzenduriko kalitate-aginipide orokorren parte izan daiteke.

ii) AGREE proiektuaren ibilbidea

Nazioarteko garatzaile eta ikertzaile talde batek, *AGREE* Kolaborazio-taldeak, alegia, jatorrizko AGREE Tresna (10) 2003an argitaratu zuen Kolaborazio-talde horrek giden kalitatea ebaluatzen zuen tresna bat garatzea zuen xede. AGREE Kolaborazio-taldeak gidaren kalitatea hala definitu zuen: *konfiantza izatea giden garapean eman daitezkeen alborapenak egokiro ebatzi direla, gomendioek barne- eta kanpo-baliotasuna dutela eta praktikan jar daitezkeela* (10). Beraz, ebaluazioak honako hauek barne hartzen ditu: gida garatzerakoan erabilitako metodoei buruzko epaia, azken gomendioen edukia eta bere onarpenarekin zerikusia daukaten faktoreak. Kolaborazio-taldeak egindako ahaleginaren ondorioz, jatorrizko AGREE Tresna sortu zen, 23 itenez eta 6 kalitate-eremuez osatuta. AGREE Tresna hainbat hizkuntzatan itzuli da, 100 argitalpen baino gehiagok egin diote erreferentzia, eta zenbait osasun-arreta erakundek sustatu egin dute. Jatorrizko tresnari buruz eta horrekin zerikusia duten argitalpenei buruz informazio gehiago nahi izatekotan, jo ezazu AGREE Research Trust-eko web-orrira (<http://www.agreetrust.org/>), AGREE Tresnaren interesak kudeatzen dituen erakunde ofiziala.

Edozein ebaluazio tresnekin gertatzen den bezala tresnaren neurketa ezaugarriak sendotzeko eta erabiltzaileen artean bere erabilgarritasuna eta bideragarritasuna bermatzeko hurrengo garapen prozesuak beharrezkoak izango zirela onartzen zen. Horren ondorioz, jatorrizko taldearen zenbait kidek "AGREE Hurrengo Urratsen Partzuergoa" eratu zuten. Partzuergoak ondorengo helburuak ditu: tresnaren neurketa ezaugarriak hobetzea, baita fidagarritasuna eta *baliotasuna*, tresnaren galderak hobetzea erabiltzaileen beharrak hobeto asetzeko; eta dokumentazio lagungarria (hala nola, jatorrizko prestakuntza-eskuliburua eta erabiltzailearen gida) hobetzea erabiltzaileek tresna segurtasunez inplementa dezaten.

Egindako ahalegin ondorioz AGREE II sortu zen. Bertan, Erabiltzailearen Eskuliburua eta sei eremuetan sailkatutako 23 galderez osatutako tresna daude. Erabiltzailearen Eskuliburua jatorrizko prestakuntza-eskuliburuaren eta erabiltzailearen gidaren moldaketa esanguratsu bat da. Horretaz gain, 23 galderei buruzko informazio esplizitua ematen du.

1. Taulak

Jatorrizko AGREE eta AGREE II Tresnaren arteko alderaketa:

| Jatorrizko AGREE Tresnaren galdera | AGREE II Tresnaren galdera |
|---|---|
| 1. eremua: Norainokoa eta Helburua | |
| 1. Gidak d(it)uen helburu orokorra(k) zehazki deskribatuta dago/daude. | Ez dago aldaketarik |
| 2. Gidak batzen d(it)uen alderdi klinikoa(k) zehazki deskribatuta dago/daude. | Gidak batzen dituen osasunari buruzko alderdia(k) zehazki deskribatuta dago/daude. |
| 3. Gida aplikatu nahi zaien pazienteak zehazki deskribatuta daude. | Gida zein populaziori (gaixoak, publikoa, e.a.) aplikatu nahi zaion zehazki deskribatuta dago.. |
| 2. eremua: Inplikatuaren Parte-hartzea | |
| 4. Gidako lantaldea lanbide-talde garrantzitsu guztietako pertsonak osatzen dute | Ez dago aldaketarik |
| 5. Pazientearen ikuspuntuak eta bere lehentasunak kontuan hartu dira. | Xede- populazioaren (gaixoak, publikoa, e.a.) ikuspegiak eta lehentasunak bilatu dira.. |
| 6. Gidaren xede-erabiltzailea(k) zein(tzuk) d(ir)en argi eta garbi definituta dago. | Ez dago aldaketarik |
| 7. Gida azken erabiltzaileen artean probatua izan da. | Galdera ezabatuta. Erabiltzaile-eskuliburuaren 19. galderaren deskripzioan gehitu da. |
| 3. eremua: Gida Egiterakoan Erabilitako Zorroztasuna | |
| 8. Ebidentzia bilatzeko metodo sistematikoak erabili dira. | Ez dago itemean aldaketarik. 7 zenbakiagatik aldatu |
| 9. Ebidentzia aukeratzeko irizpideak argitasun osoz deskribatzen dira. | Ez dago itemean aldaketarik. 8 zenbakiagatik aldatu |
| | BERRIA 9 GALDERA Aurkitutako ebidentziaren puntu sendoak eta mugak argitasun osoz deskribatzen dira |
| 10. Gomendioak garatzeko erabili diren metodoak argi eta garbi deskribatzen dira. | Ez dago aldaketarik |
| 11. Gomendioak garatzerakoan osasun onurak, bigarren mailako eraginak eta arriskuak kontuan hartu dira. | Ez dago aldaketarik |

| Jatorriko AGREE Tresnaren galdera | AGREE II Tresnaren galdera |
|---|---|
| 12. Gomendio bakoitzaren eta oinarritzen den ebidentziaren artean harreman esplizitu bat dago. | Ez dago aldaketarik |
| 13. Gida argitaratu aurretik, kanpoko adituek berraztertu dute.. | Ez dago aldaketarik |
| 14. Gidak eguneratze prozedura dakar. | Ez dago aldaketarik |
| 4. eremua: Aurkezpenaren Gardentasuna | |
| 15. Gomendioak espezifikoak dira eta ez dira zalantzasak. | Ez dago aldaketarik |
| 16. Gaixotasuna edo egoera bat tratatzeko aukera ezberdinak argi eta garbi azaltzen dira. | Gaixotasuna edo osasun-egoera tratatzeko dauden aukera ezberdinak argi eta garbi azaltzen dira. |
| 17. Gomendio giltzarriak erraz identifikatzen dira. | Ez dago aldaketarik |
| 5. eremua: Aplikagarritasuna | |
| 18. Gida bere ezarpenerako tresnekin lagunduta dator. | Gidak gomendioak ezartzen laguntzeko aholkuak edo tresnak eskaintzen ditu.. Eremu-aldaketa (Aurkezpenen Argitasunean) eta 19. zenbakiagatik aldatu |
| 19. Gomendioak ezartzerako orduan gerta daitezkeen antolakuntza-oztopoak eztabaidatu dira. | Gidak bere gomendioak ezartzeko (praktikan jartzeko) dauden erraztasunak eta oztopoak deskribatzen ditu Aldaketa ordenan-18 zenbakiagatik aldatu |
| 20. Gomendioak ezartzeko orduan gerta daitezkeen kostuak kontuan hartu dira. | Gomendioak ezartzeko orduan egon daitezkeen baliabideen beharrak kontuan hartu dira |
| 21. Gidak oinarritzko irizpideen zerrenda eskaintzen du, monitorizazio edo/eta auditoretza bat egiteko asmoz. | Gidak jarraipena edo/eta auditoriak egiteko irizpideak eskaintzen ditu. |
| 6. eremua: Argitaratzeko Askatasuna | |
| 22. Gida finantzatzen duen entitatearekiko editorialki independentea da. | Finantzaketa erakundearen ikuspuntuek ez dute eraginik izan gidaren edukian. |
| 23. Garapen-taldeko kideen interes-gatazkak erregistratu dira. | Gidaren lantaldeko kideen interes-gatazkak erregistratu eta adierazi dira. |

II. ERABILTZAILEAREN ESKULIBURUA: AGREE II TRESNA ERABILTZeko JARRAIBIDEAK

i) Zein gida ebalua ditzake AGREE II Tresnak?

AGREE II Tresna, jatorrizko tresna bezala, bertako taldeak garatutako gidak, eskualdekoak, nazionalak edo nazioartekoak eta baita gobernu-erakundeek garatutako praktika klinikorako gidak ere ebaluatzen diseinatu izan da, praktika klinikako giden jatorrizko bertsioak eta bertsio eguneratuak ere barne-hartuta.

AGREE II Tresna generikoa da eta gaixotasunaren edozein alderdiri buruzko gidak ebaluatzen erabil daitezke. Baita osasun-arretako prozesu jarraituaren edozein punturi, hala nola, osasun promozioari, osasun publikoari, baheketari, diagnosiari zein tratamenduari buruzko gidetan. ere erabil daitezke Tresna paperean zein euskarri elektronikoan argitaratu diren gidei aplikatu dakiok. Oraingoan, AGREE II Tresna ez da sortu osasun-antolakuntza inguruko gaiak jasotzen dituzten giden kalitatea ebaluatzen.

Osasun teknologiak balioztatzen izan dezakeen zeregina oraindik ez da ebaluatu.

ii) Nork erabil dezake AGREE Tresna?

AGREE Tresna honako talde hauek erabil dezaten nahi da:

- **osasun eremuko kudeatzaileak** gida bat ebalua dezaten haren gomendioak praktikan jarri aurretik;
- **giden egileak** gidaren garapenerako zehatza eta egituratua den metodologia bat jarrai dezaten, euren giden kalitatea bermatzen duen auto ebaluaziorako tresna gisa, edo beste taldeen gidak ebaluatzen ondoren euren testuingurura egokitzeko;
- **Osasun-politiken arduradunek** praktikara eramateko gomendatu nahi den gidaren aukeratan edo osasun-politiken inguruko erabakiak hartzen laguntzeko.
- **hezitzaileak**, osasun-profesionalei irakurketa kritikoa trebatzen laguntzeko eta giden garapenerako eta aurkezpenerako funtsezko gaitasunak irakasteko.

III. FUNTSEZKO BALIABIDEAK ETA ERREFERENTZIAK

i) AGREE Research Trust

AGREE Research Trust (ART) 2004. urtean, jatorrizko AGREE Collaboration-aren jarduerak bukatu zirenean sortu zen erakunde independentea da. ART-ek AGREE II berresten du eta AGREE ekimenaren interesak kudeatzen ditu, haren garapenarekin lotutako ikerketa-agenda zaintzen du, eta horren egile-eskubideak ditu.

AGREE Research Trust-eren webgunean, <http://www.agreetrust.org> hauxe aurki dezakegu:

- AGREE II Tresnaren doako kopiak deskargatzeko
- AGREE II Tresnan trebatzeko sareko estekak
- AGREE II eta jatorrizko AGREE Tresna aipatzen duten erreferentzia-zerrendak
- Jatorrizko AGREE Tresnaren doako kopiak deskargatzeko
- AGREE proiektuei, AGREE Hurrengo Urratsen Partzuergoaren eta AGREE Collaboration-en inguruko informazioa

ii) AGREE II nola aipatu

AGREE Next Steps Consortium (2009). *AGREE II Tresna* [Bertsio elektronikoa]. Berreskuratuta <Urtea, Hila, Eguna>, webgunetik <http://www.agreetrust.org>.

iii) AGREE II-an trebatzeko sareko tresna

AGREE II-an Trebatzeko Sareko Tresnan sartzeko, jo ezazu <http://www.agreetrust.org> webgunera.

iv) AGREE II inguruko erreferentziak

AGREE II: Advancing guideline development, reporting and evaluation in healthcare. *Aldi berean beste argitalpen batzuk eratzten ari dira*

v) **Jatorrizko AGREE Tresnarekin lotutako erreferentzia primarioa**

AGREE Collaboration. Development and validation of an international appraisal instrument for assessing the quality of clinical practice guidelines: the AGREE project. *Qual Saf Health Care*. 2003 Feb;12(1):18-23.

ERREFERENTZIAK

1. Woolf SH, Grol R, Hutchinson A, Eccles M, Grimshaw J. Clinical guidelines: potential benefits, limitations, and harms of clinical guidelines. *BMJ*. 1999 Feb;318(7182):527-530.
2. Committee to Advise the Public Health Service on Clinical Practice Guidelines IoM. *Clinical practice guidelines: directions for a new program*. Washington: National Academy Press; 1990.
3. Browman GP, Snider A, Ellis P. Negotiating for change. The healthcare manager as catalyst for evidence-based practice: changing the healthcare environment and sharing experience. *Health Pap*. 2003;3(3):10-22.
4. Grol R. Success and failures in the implementation of evidence-based guidelines for clinical practice. *Med Care*. 2001;39(8 Suppl 2):1146-54.
5. Davis DA, Taylor-Vaisey A. Translating guidelines into practice: a systematic review of theoretic concepts, practice experience and research evidence in the adoption of clinical practice guidelines. *CMAJ*. 1997;157(4):408-16.
6. Grimshaw J, Russell I. Effect of clinical guidelines on medical practice: a systematic review of rigorous evaluations. *Lancet*. 1993;342:1317-22.
7. Shaneyfelt TM, Mayo-Smith MF, Rothwangl J. Are guidelines following guidelines? The methodological quality of clinical practice guidelines in the peer-reviewed medical literature. *JAMA* 1999;281(20):1900-5.
8. Grilli R, Magrini N, Penna A, Mura G, Liberati A. Practice guidelines developed by specialty societies: the need for critical appraisal. *Lancet*. 2000;355:103-6.
9. Burgers JS, Fervers B, Haugh M, Brouwers M, Browman G, Phillip T, Cluzeau FA. International assessment of the quality of clinical practice guidelines in oncology using the Appraisal of Guidelines and Research and Evaluation Instrument. *J Clin Oncol*. 2004;22:2000-7.
10. AGREE lankidetzta Development and validation of an international appraisal instrument for assessing the quality of clinical practice guidelines: the AGREE project. *Qual Saf Health Care*. 2003 Feb;12(1):18-23.
11. AGREE II: Advancing guideline development, reporting and evaluation in healthcare. Aldi berean beste argitalpen batzuk eratzten ari dira.

AGREE II:

ERABILTZAILEAREN ESKULIBURUA

II. ERABILTZAILEAREN ESKULIBURUA: AGREE II ERABILTZeko JARRAIBIDEAK

Erabiltzailearen eskuliburu hau espezifikoki diseinatua izan da Tresnaren erabilpenean gidatzeko. AGREE II Tresna erabili aurretik hurrengo jarraibideak arretaz irakurtzea gomendatzen dizugu.

I. AGREE II erabiltzeko nola prestatu

i) Gidari atxikitako dokumentuak

AGREE II erabili aurretik, erabiltzaileek ongi irakurri beharko lukete gida osoa. Gidaren dokumentuaz gain, erabiltzaileak gidaren garapenaren inguruko informazio guztia identifikatzen saiatu beharko lirateke. Informazio hori gomendioak dauden dokumentu berean egon liteke edo era laburtuan bereizitako beste txosten tekniko batean, eskuliburu metodologiko batean, edo osasun-politikei buruzko txostenetan (Adib. praktika klinikorako gidei buruzko programak) ere egon daiteke. Dokumentu lagungarri horiek argitaratuta egon daitezke edo webguneetan nahi duenarentzat eskuragarri. Nahiz eta gidaren egileen ardura izan irakurleei dokumentu tekniko eta lagungarri osagarriak daudela eta horiek non dauden jakinaraztea, AGREE II tresnaren erabiltzaileek material /dokumentu hauek aurkitzeko eta behar bezala ebaluatzeko ahalegin guztiak egin beharko lukete.

ii) Behar den ebaluatzaile-kopurua

Gida, gutxienez, bi ebaluatzailek -eta hobe lauk- ebaluatu beharko lukete; horrek ebaluazioaren fidagarritasuna handituko luke. Etengabe egiten dira tresnaren fidagarritasun-testak.

II. AGREE II Tresnaren egitura eta edukia

AGREE II Tresnak 23 funtsezko galdera edo item ditu, 6 eremutan antolatuta, eta beste puntuazio orokorreko 2 galdera ("ebaluazio orokorra"). Eremu bakoitzak gidaren kalitatearen dimentsio bakarra biltzen du.

1. *eremua: Norainokoa eta Helburua* (1-3 galderak), gidaren asmo orokorra aipatzen du, osasun-alderdi espezifikoei eta pazienteen xede-populazioari dagokio.

2. *eremua: Inplikatuaren Parte-hartzea* (4-6 galderak), interesatuek edo inplikatuek gidaren garapenean izandako partehartze maila aztertzen du eta zuzenduriko erabiltzaileen ikuspuntua adierazten du.

3. *eremua: Gida Egiterakoan Erabilitako Zorroztasuna* (8-14 galderak), ebidentzia bildu eta laburtzeko erabilitako prozesuari eta gomendioak garatu eta eguneratzeko erabilitako metodoei erreferentzia egiten dio.

4. *eremua: Gardentasuna eta Aurkezpena*, gidaren hizkuntzarekin, egiturarekin eta formatuarekin du zerikusia (15-17 galderak).

5. *eremua: Aplikagarritasuna*, gida martxan jartzeko edo inplementatzeko egon daitezkeen oztopoei eta laguntzaileei erreferentzia egiten dio, baita bere onarpena hobetzeko estrategiei eta gida aplikatzeak/erabiltzeak baliabideeten duen eraginari ere (18-21 galderak).

6. *eremua: Argitaratzeko Askatasuna*, interes kontrajarriak direla eta alborapen arriskurik ez duten gomendioen garapenarekin du zerikusia (22-23 galderak).

Ebaluazio orokorrak gidaren kalitate orokorraren puntuazioa eta gida praktikan erabiltzeko gomenda daitezkeen edo ez aztertzen du.

III. Puntuazio eskala eta Erabiltzaile Eskuliburuaren atalak

AGREE II -aren galdera bakoitza eta baita bukaerako bi galdera orokorrak ere 7 puntuko eskalaren arabera balioztatuko dira (1 erabat aurka eta 7-erabat ados). Erabiltzailearen Eskuliburuan galdera bakoitza puntuazio eskala erabiliz nola balioztatu azaltzen da. eta, gainera, erabiltzaileei ebaluazio lana errazteko beste 3 atal ere baditu.: Erabiltzailearen Eskuliburuaren Deskribapena, Non begiratu, eta nola Puntuatu.

i) Puntuazio eskala

AGREE II Tresnaren galdera guztiak ondorengo 7 puntuko eskalaren arabera puntuatzen dira:

| | | | | | | |
|-------------|---|---|---|---|---|-------------|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| Batere ados | | | | | | Erabat ados |

Puntu 1 (*Batere ados*). puntu 1 emango zaio AGREE II galderari buruzko informaziorik ez dagonean edo kontzeptua oso gutxi azaldu denean.

7 puntu(*Erabat ados*). 7 puntu emango zaizkio informazioaren kalitatea bikaina denean eta Erabiltzailearen Eskuliburuan landutako irizpide eta iritzi guztiak bete direnean.

2 eta 6 puntu bitartean. 2 eta 6 puntu bitartean emango zaizkio AGREE II galderaren inguruko irizpide edo iritzi guztiak betetzen ez dituztenean. puntuazioa irizpideen betetze eta kalitate mailaren arabera izango da. Irizpideak bete ahala, eta gehitu ahala, puntuak areagotuko dira. "Nola puntuatu" atalak galdera bakoitzerako ebaluaketa irizpideak eta gogoeta espezifikokoak barne hartzen ditu.

ii) Erabiltzailearen Eskuliburuaren Deskribapena

Atal honetan galderaren azpian dagoen kontzeptua bere osotasunean definitzen da eta haren adibideak ematen dira.

iii) Non begiratu

Atal honetan, erabiltzaileari galderan eskatzen den informazio gidako zein tokitan egon daitekeen adierazten zaio. Atal honetan iradokizun bezala, gidaren atalak edo kapituluak adierazteko erabili ohi diren izenburuak agertzen dira, Erabiltzailearen erantzukizuna da gida osoa eta material osagarria aztertzea bidezko ebaluazio bermatzeko.

iv) Nola puntuatu

Atal honetan galdera bakoitzari dagozkion ebaluatzeko irizpideei eta gogoeta zehatzen ebaluazioari buruzko xehetasunak biltzen dira.

- *Irizpideek* galderaren definizio operatiboa islatzen duten elementu esplizituak identifikatzen dituzte. Zenbat eta irizpide gehiago bete, orduan eta puntu gehiago lortuko ditu gidak galdera horretan.
- *Gogoetak* ebaluazioari buruz informatzen laguntzen dute. Beste edozein ebaluaziotan bezala, erabiltzaileen gogoetak beharrezkoak dira. Zenbat eta iritzi edo gogoeta gehiago kontuan hartu gidan, orduan eta puntu gehiago lortu beharko lituzke galdera horretan.

Garrantzitsua da kontuan izatea puntuak ematerako orduan irizpideen oinarritutako erabakiak hartu beharko direla beti. Ebaluaketa irizpideak eta gogoeta espezifikokoak iritzi horiek zuzentzen laguntzeko daude, eta ez ordeztzeko. Beraz, AGREE II Tresnaren galdera batek ere ez ditu eskalako 7 puntuentzako azalpen zehatzik ematen.

v) AGREE II Tresna erabiltzeko orduan kontuan hartu beharreko beste hainbat gauza

Zenbait kasutan, AGREE II Tresnaren zenbait galdera ezingo dira aplikatu aztertzen ari den gida zehatzean. Adibidez: Norainoko oso murrizta duten gidek ez dituzte egoera klinikoaren tratamendurako aukera guztiak zertan eman (ikus 16 galdera). AGREE II tresnak ez du "Ezin da aplikatu" erantzuna bere eskalan. Egoera horri aurre egiteko hainbat estrategia daude, horien artean ebaluazio-prozesuan galdera konkretu hori ez ebaluatzea edo galderari 1 balioa ematea (informazioa eza) eta puntuazioari buruzko informazioa eskainiz. *Aukeratutako estrategia nahi dena dela ere, erabakiak aurretiaz hartu beharko lirateke, modu zehatzean azalduta, eta galderaren bat ez bada ebaluatu dagokion ,eremuko puntuazioa kalkulatzeko beharrezkoak diren aldaketak aplikatu beharko lirateke. Printzipioz, ez da gomendatzen ebaluazio-prozesuan galderarik ebaluatu gabe ustea.*

iv) AGREE II tresnaren puntuazioa

Kalitatearen puntuazioa tresnaren sei eremuetako bakoitzarentzat kalkulatzen da. Sei eremuetako puntuazioak independenteak dira eta ez dira kalitate-puntuazio bakar batean erantsi behar.

i) Eremuetako puntuak nola kalkulatu

Eremu ezberdinen puntuazioak eremu batean dauden banakako galderen puntu guztiak gehituz eta eremu horretan eman daitekeen gehienezko puntuazioaren ehuneko gisa kalkulatzen dira.

Adibidea: 4 ebaluatzailek 1. eremuko (Norainokoa eta helburua) galderei honako puntuazio hauek ematen dizkiete:

| | 1. galdera | 2. galdera | 3. galdera | Guztira |
|------------------|------------|------------|------------|----------------|
| 1. ebaluatzailea | 5 | 6 | 6 | 17 |
| 2. ebaluatzailea | 6 | 6 | 7 | 19 |
| 3. ebaluatzailea | 2 | 4 | 3 | 9 |
| 4. ebaluatzailea | 3 | 3 | 2 | 8 |
| Guztira | 16 | 19 | 18 | 53 |

Eman daitekeen gehienezko puntuazioa = 7 (Erabat ados) x 3 (galderak) x 4 (ebaluatzaileak) = 84

Eman daitekeen gutxieneko puntuazioa = 1 (Batere ados) x 3 (galderak) x 4 (ebaluatzaileak) = 12

Honako hau izango da eremuaren puntuazio estandarizatua:

$$\frac{\text{Lortutako puntuazioa} - \text{eman daitekeen gutxieneko puntuazioa}}{\text{Eman daitekeen gehienezko puntuazioa} - \text{eman daitekeen gutxieneko puntuazioa}}$$

$$\frac{53 - 12}{84 - 12} \times 100 = \frac{41}{72} \times 100 = 0,5694 \times 100 = 57\%$$

Galderaren bat ebaluatua izan ez bada, puntuazio maximoak eta minimoak kalkulatzeko beharrezkoak diren aldaketak egin beharko dira.

ii) Eremuko puntuazioak nola interpretatu

Eremuko puntuazioak gida ezberdinak konparatzeko eta gidaren erabilera gomendatzeko erabilgarriak badira ere, Partzuergoak ez ditu eremuen gutxieneko puntuak zehaztu, ezta kalitate oso handiko eta kalitate oso txikiko gidak bereizteko puntuen txantiloiak ere.,. Erabaki horiek erabiltzaileak hartu beharko lituzke eta AGREE II Tresna erabiltzen den testuinguruan oinarritu beharko litzateke.

V. Ebaluazio orokorra

23 galderak bete ondoren, AGREE II Tresnaren erabiltzaileek gidaren 2 ebaluazio orokor gehiago burutu beharko dute. Ebaluazio orokor hau egiteko, erabiltzaileak gidaren kalitateari buruzko gogeta egin beharko du, eta kontuan hartuko ditu ebaluazio prozesuan zehar aintzat hartutako irizpideak. Erabiltzaileari gida hori erabiltzea gomendatuko lukeen edo ez ere galdetuko zaio.

Hurrengo orrietan, gida bat ebaluatzeko AGREE II Tresnaren galdera bakoitza puntuatzeko argibideak datoz eremutan banatuta. Galdera bakoitzak deskribapena eta informazioa non bilatu eta nola puntuatu adierazten dituzten iradokizunak dakartza.

1. EREMUA. NORAINOKOA ETA HELBURUA

1. Gidak d(it)uen helburu orokorra(k) zehazki deskribatuta dago/daude.
2. Gidak batzen d(it)uen alderdi kliniko(k) zehazki deskribatuta dago/daude.
3. Gida zein populaziori (gaixoak, publikoa, e.a.) aplikatu nahi zaion zehazki deskribatuta dago.

NORAINOKOA ETA HELBURUA

1. Gidak d(it)uen helburu orokorra(k) zehazki deskribatuta dago/daude.

| | | | | | | |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|
| 1 Batere ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Azalpenak

Erabiltzailearen eskuliburuaren deskribapena

Atal honek, gizartean paziente-taldeengan eta banakakoengan, gidak izan dezakeen eraginari buruz hitz egiten du. Gidaren helburu edo helburuak zehetasunez deskribatu behar dira eta espero daitezkeen osasun-onurak gidan adierazitako arazo klinikoari edo osasun gaiari dagozkionak izan beharko dira.

Honako hauek izan litezke helburu orokorren adierazpen adibide batzuk:

- Diabetes mellitusa duten pazienteen epe luzerako konplikazioak prebenitzea
- Aurretik miokardioko infartua izan duten gaixoetan gertaera baskularrak edukitzeko arriskua jaitea
- Kolon-ondesteko baheketak egiteko populazio-mailako estrategia eraginkorrenak
- Diabetes mellitusa duten gaixoen tratamendu eta kudeaketa eraginkorrenen inguruko argibideak ematea

Non begiratu:

Aztertu sarrerako paragrafoak edo kapituluak gidaren helburua eta xedearen deskribapena irakurtzeko. Zenbait kasutan, gidaren arazoia edo beharra gidatik kanpoko beste dokumentu batean dator, esaterako, gidaren proposamenean. Informazio hau aurki daitekeen gidaren atal edo kapitulu ohikoen adibideak honakoak dira: galderak, norainokoak, xedea, oinarriak, aurrekariak eta helburuak.

Nola puntuatu:

Galderaren edukiak ondorengo irizpideak dituzte:

- osasun asmoa(k) (hau da, prebentzioa, jarraipena, diagnosia, tratamendua, e.a.)
- espero diren onurak edo emaitzak
- Xede-populazioa(k) (hau da, gizartea, gaixoak)

Aipamen osagarriak:

- Ondo idatzita al dago galdera? Deskribapenak argiak eta zehatzak al dira?
- Erraz aurki al daiteke galderaren edukia gidan?

NORAINOKOA ETA HELBURUA

2. Gidak batzen d(it)uen alderdi kliniko(k) zehazki deskribatuta dago/daude.

| | | | | | | |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|
| 1 Batare ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Azalpenak

Erabiltzailearen eskuliburuaren deskribapena

Gidak aztertzen dituen osasun galderen deskribapen xehea eman beharko litzateke, gomendio nagusientzat bereziki (ikus 17. galdera), nahiz eta galdera bezala agian ez datozen.

1. galderan deskribatu diren adibideekin jarraituz:

- Diabetes mellitusa duten pazienteei urtean zenbat aldiz neurtu behar zaie Hb1Ac delakoa?
- Egiaztatutako miokardioko infartu akutudun pazienteentzat zein da egunero hartu behar duten aspirina-dosia?
- Gorozkietan dagoen odolaren azterketaren bidez buruturiko populazio-mailako kolon-ondesteko baheketak, kolon-ondesteko minbiziaren hilkortasuna gutxitzen al du?
- Eraginkorra al da norberaren odoleko glukosa mailaren jarraipena egitea 2 motako diabetesa duten gaixoetan?

Non begiratu:

Aztertu sarrerako paragrafoak edo kapituluak gidaren helburua eta xedearen deskribapena irakurtzeko. Zenbait kasutan, gidan ez dauden dokumentuetan datoz galderak, bilaketa deskribapenaren dokumentuan, esaterako. Informazio hau aurki daitekeen gidaren atal edo kapitulu ohikoen adibideak honakoak dira: galderak, norainokoak, xedea, oinarriak, aurrekariak eta helburuak.

Nola puntuatu:

Galderaren edukiak ondorengo irizpideak dituzte:

- xede-populazioa
- Interbentzioa(k) edo esposizioa(k)
- konparaketak (balegoke)
- emaitza(k)
- osasun zaintzaren zehaztapena edo testuingurua

Aipamen osagarriak:

- Ondo idatzita al dago galdera? Deskribapenak argiak eta zehatzak al dira?
- Erraz aurki al daiteke galderaren edukia gidan?
- Informazio nahikoa al dago galder(et)an gai beraren inguruko gida baten garapena hastera doan edonorentzat edo gidan perfiletatutako gaixoen/populazioaren edota testuingurua ulertzeko?

NORAINOKOA ETA HELBURUA

3. Gida zein populaziori (gaixoak, publikoa, e.a.) aplikatu nahi zaion zehazki deskribatuta dago.

| | | | | | | |
|-------------|---|---|---|---|---|-------------|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| Batere ados | | | | | | Erabat ados |

Azalpenak

Erabiltzailearen eskuliburuaren deskribapena

Gida zuzentzen den populazioaren (hau da, gaixoen, publikoaren, e.a.) deskribapen argia adierazi beharko litzake. Adin-taldeari, sexuari, deskribapen klinikoari eta komorbilitateari buruzko datuak eman beharko dira. Esate baterako:

- Diabetes mellitusa tratatzeko gida, intsulinarene mendekoa ez den diabetes mellitusa duten pazienteak bakarrik barne hartzen dituena eta komorbilitate kardiobaskularra duten pazienteak baztertzen dituena.
- Depresioa tratatzeko gida, DSM-IV irizpidearen arabera depresio handia duten pazienteak baino ez dituena barne hartzen eta sintoma psikotikoak dituzten pazienteak eta umeak baztertzen dituena.
- Bularreko minbizia behatzeko gida, 50 eta 70 urte bitarteko emakumezkoak, aurretik minbizia izan ez dutenak eta familian bularreko minbizirik izan ez dutenak barne hartzen dituena.

Non begiratu:

Aztertu sarrerako paragrafoak edo kapituluak gidaren xede-populazioaren deskribapena irakurtzeko. Zenbait populazio (haurrak, esaterako) kanpoan utzi izanaren adierazpena ere biltzen du galderak. Informazio hau aurki daitekeen gidaren atal edo kapitulu ohikoen adibideak honakoak dira: gaixoak, xede populazioa, gaixo garrantzitsuenak, xedea eta helburua.

Nola puntuatu:

Galderaren edukiak ondorengo irizpideak dituzte:

- xede-populazioa, generoa eta adina
- osasun baldintza edo baldintza klinikoak (aipagarria denean)
- gaixotasunaren larritasuna/fasea (aipagarria denean)
- komorbilitatea (aipagarria denean)
- kanpoan utzitako populazioa (aipagarriak direnean)

Aipamen osagarriak:

- Ondo idatzita al dago galdera? Deskribapenak argiak eta zehatzak al dira?
- Erraz aurki al daiteke galderaren edukia gidan?
- Populaziori buruzko informazioa nahikoa zehatza al da, banakako egoki eta hautagarriek gidan gomendatutako ekintza modu zuzenean jaso dezaten?

2. EREMUA. INPLIKATUEN PARTE-HARTZEA

4. Gidako lantaldea lanbide-talde garrantzitsu guztietako pertsonak osatzen dute.
5. Xede- populazioaren (gaixoak, publikoa, e.a.) ikuspegiak eta lehentasunak bilatu dira.
6. Gidaren xede-erabiltzaileak zeintzuk diren argi eta garbi definituta dago.

INPLIKATUEN PARTE-HARTZEA

4. Gidako lantaldea lanbide-talde garrantzitsu guztietako pertsonak osatzen dute.

| | | | | | | |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|
| 1 Batere ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Azalpenak

Erabiltzailearen eskuliburuaren deskribapena

Galdera hau, gidaren elaborazio-prozesuaren faseren batean parte hartu zuten profesionali buruzkoa da. Hemen honako hauek egongo lirateke: zuzendaritza-taldeko kideak, ebidentzia aukeratzeaz arduratzen den ikerketa-taldea, eta azken gomendioak idazteaz arduratzen diren gizabanakoak. *Multzo horietatik kanpo, gida kanpotik berraztertzen duten pertsonak geratzen dira (ikus 13. galdera). Galdera honek kanpoan uzten du xede-populazioaren ordezkari (ikus 5. galdera).* Gidako lantaldearen osaketari, lanbideei eta esperientzia aipagarriari buruzko informazioa eman beharko da.

Non begiratu:

Aztertu sarrerako paragrafoak edo kapituluak, esker onen atala edo eranskinak, gidako lantaldea osatzen duten kideak nor diren jakiteko. Informazio hau aurki daitekeen gidaren atal edo kapitulu ohikoen adibideak honakoak dira: metodoak, gidaren kideen zerrenda, eskerrak, eta eranskinak.

Nola puntuatu:

Galderaren edukiak ondorengo irizpideak dituzte:

- Gida garatzeko taldeko kide bakoitzarentzat, ondorengo informazioa bilduko da:
 - izena
 - diziplina/eskarmentua (adibidez: neurozirujaua, metodologoa)
 - erakundea (esaterako: St. Peter's Ospitalea)
 - kokapen geografikoa (esaterako: Seattle, WA)
 - lantaldeko kideek gidaren garapenean izandako zereginaren deskribapena

Aipamen osagarriak:

- Ondo idatzita al dago galdera? Deskribapenak argiak eta zehatzak al dira?
- Erraz aurki al daiteke galderaren edukia gidan?
- Kideak egokiak al dira gaiarentzat eta norainokoentzat? Hautagaiak izan daitezkeenak: mediku garrantzitsuak, eduki horietan adituak, ikertzaileak, politiken diseinatzaileak, klinika administratzaileak eta finantziatzaileak.
- Garapen taldean ba al dago gutxienez metodologian aditua den norbait (adibidez: azterketa sistematikoetan aditua, epidemiologoa, estatistikoa, liburu-zientzietako aditua edo dokumentalista, e.a.)?

INPLIKATUEN PARTE-HARTZEA

5. Xede- populazioaren (gaixoak, publikoa, e.a.) ikuspegiak eta lehentasunak bilatu dira.

| | | | | | | |
|-------------|---|---|---|---|---|-------------|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| Batere ados | | | | | | Erabat ados |

Azalpenak

Erabiltzailearen Eskuliburuaren Deskribapena

Praktika klinikoari buruzko gidak garatzerakoan, xede-populazioaren esperientzien gaineko informazioa eta osasun-arretari buruzko beraien espektatibak edo itxaropenak kontuan izan beharko dira. Badira hainbat metodo xede-populazioaren ikuspegiak gidaren garapen-fase ezberdinetan kontuan hartzen direla bermatzeko, Esaterako, lehentasuneko gaiak zehazteko kontsulta formalak egitea gaixoekin edo publikoarekin, hauen parte hartzea gidako lantaldean edo dokumentuen zirriborroen kanpo azterketan. Bestalde, gaixoekin zein beste inplikatuekin egindako elkarrizketa bidez ere informazioa lor daiteke, edo hauen balioak, lehentasunak edo esperientziak biltzen dituzten argitalpen espezializatuetatik. Gidan zehar, xede-populazioaren ikuspuntuak kontuan hartu direla egiaztatzen duten frogak egon beharko lirateke, burutako prozesuak azalduz.

Non begiratu:

Aztertu gida garatzeko prozesuko paragrafoak. Informazio hau aurki daitekeen gidaren atal edo kapitulu ohikoen adibideak honakoak dira: helburuak, metodoak, gidaren kideen zerrenda, kanpo-azterketa eta helburu-populazioaren ikuspuntuak.

Nola puntuatu:

Galderaren edukiak ondorengo irizpideak dituzte:

- gaixoen edo publikoaren ikuspuntuak eta lehentasunak jasotzeko erabilitako estrategiak zehazten dira (adibidez: gidako lantaldean parte hartu izana, balioen eta lehentasunen berrikuste bibliografikoa burutu izana)
- lehentasunak eta ikuspuntuak biltzeko metodoak zeintzuk izan diren (esaterako, berrikuste bibliografikotik ateratako frogak, inkestak, eztabaida taldeak)
- gaixoen/publikoaren inguruan jasotako informazioren emaitzak/ informazioa.
- bildutako informazioa gida garatzeko prozesuan eta gomendioen garapenean zehar nola erabili izan den adieraztea

Aipamen osagarriak:

- Ondo idatzita al dago galdera? Deskribapenak argiak eta zehatzak al dira?
- Erraz aurki al daiteke galderaren edukia gidan?

INPLIKATUEN PARTE-HARTZEA

6. Gidaren xede-erabiltzailea(k) zein(tzuk) d(ir)en argi eta garbi definituta dago.

| | | | | | | |
|-------------|---|---|---|---|---|-------------|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| Batere ados | | | | | | Erabat ados |

Azalpenak

Erabiltzailearen Eskuliburuaren Deskribapena

Gidaren xede-erabiltzaileak zeintzuk diren argi eta garbi definituta egon behar da, erabiltzaileek gida eurentzat garrantzitsua den ala ez berehala zehazteko moduan. Esate baterako, gerrialdeko minari buruzko gida bateko xede-erabiltzaileen artean honako hauek egon daitezke: mediku orokorrak, neurologoak, zirujau ortopedikoak, erreumatologoak eta fisioterapeutak.

Non begiratu:

Aztertu sarrerako paragrafoak edo kapituluak gidaren helburua eta xedearen deskribapena irakurtzeko. Informazio hau aurki daitekeen gidaren atal edo kapitulu ohikoen adibideak honakoak dira: xede-erabiltzaileak eta erabiltzaile potentziala.

Nola puntuatu:

Galderaren edukiak ondorengo irizpideak dituzte:

- Xede-erabiltzaileak izan daitezkeenak argi zehazten dira (adibidez: mediku espezialistak, familia-medikuak, gaixoak, edo erakundeetako zuzendariak edo administratzaileak)
- Xede-erabiltzaileek gida nola erabil dezaketen azaltzen du (adibidez: erabaki klinikoaren hartzean laguntzeko, edo osasun plangintzako erabakietan edo zaintza-arauak ezartzeko)

Aipamen osagarriak:

- Ondo idatzita al dago galdera? Deskribapenak argiak eta zehatzak al dira?
- Erraz aurki al daiteke galderaren edukia gidan?
- Egokiak al dira xede-erabiltzaileak gidaren helburuarentzat?

3. EREMUA. GIDA EGITERAKOAN ERABILITAKO ZORROZTASUNA

7. Ebidentzia bilatzeko metodo sistematikoak erabili dira.
8. Ebidentzia aukeratzeko irizpideak argitasun osoz deskribatzen dira.
9. Aurkitutako ebidentziaren puntu sendoak eta mugak argitasun osoz deskribatzen dira.
10. Gomendioak garatzeko erabili diren metodoak argi eta garbi deskribatzen dira.
11. Gomendioak garatzerakoan osasun onurak, bigarren mailako eraginak eta arriskuak kontuan hartu dira.
12. Gomendio bakoitzaren eta oinarritzen den ebidentziaren artean harreman esplizitua dago.
13. Gida argitaratu aurretik, kanpoko adituek berraztertu dute.
14. Gidak eguneratze prozedura dakar.

GIDA EGITERAKOAN ERABILITAKO ZORROZTASUNA

7. Ebidentzia bilatzeko metodo sistematikoak erabili dira.

| | | | | | | |
|-------------|---|---|---|---|---|-------------|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| Batere ados | | | | | | Erabat ados |

Azalpenak

Erabiltzailearen eskuliburuaren azalpena

Ebidentzia bilatzeko erabilitako estrategiari buruzko xehetasunak erantsi behar dira, erabilitako bilaketa-terminoak, kontsultatutako iturriak eta bilaketa-aldiak. Iturrietan honako datu hauek ager daitezke: datu-base elektronikoak (esaterako MEDLINE, EMBASE, CINAHL), berrikuste sistematikoen datu-baseak (esaterako Cochrane Library, DARE), aldizkarietan egindako esku-bilaketa, biltzarren komunikazioen berrikusteak eta beste gida kliniko batzuk (esaterako US National Guideline Clearinghouse delakoa eta German Guidelines Clearinghouse delakoa). Bilaketa-estrategia ulertzeko ahalik eta errazena izan beharko luke, alborapenak ekiditeko moduan burututakoa, eta errepikagarritasun zehatza baimenduz.

Non begiratu

Gidaren garapen metodoak deskribatzen diren paragrafo eta kapituluak aztertu. Zenbait kasutan, bilatzeko strategiak aparteko beste dokumentu batean deskribatzen dira edo gidaren eranskin batean. Informazio hau aurki daitekeen gidaren atal edo kapitulu ohikoen adibideak honakoak dira: metodoak, bilaketa estrategia eta eranskinak.

Nola Puntuatu

Galdera honen edukiek ondorengo irizpideak dituzte

- Bilaketa(k) egin d(ir)en leku(ar)en datu-base elektronikoak edo ebidentzia iturriak izendatzen dira (ad., MEDLINE, EMBASE, PshychINFO, CINAHL)
- Bilaketa aldiak (ad., 2004 Urtarrilak 1etik, 2008 Martxoak 31era)
- Erabilitako bilaketa terminoak (ad., hitzak, termino indizatuak, azpi-goiburuak)
- Bilaketan buruturiko estrategia osoa (litekeena da eranskinean egotea)

Aipamen osagarriak:

- Ondo idatzita al dago galdera? Deskribapenak argiak eta zehatzak al dira?
- Erraz aurki al daiteke galderaren edukia gidan?
- Egindako bilaketa egokia eta esanguratsua al da osasun galderari erantzuteko,? (ad., datu-base garrantzitsu guztiak eta bilaketa egiteko erabili diren terminoak egokiak izatea)
- Bilaketa errepikatze beharrezkoa den informazio guztia al dator?

GIDA EGITERAKOAN ERABILITAKO ZORROZTASUNA

8. Ebidentzia aukeratzeko irizpideak argitasun osoz deskribatzen dira.

| | | | | | | |
|-------------|---|---|---|---|---|-------------|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| Batere ados | | | | | | Erabat ados |

Azalpenak

Erabiltzailearen eskuliburuaren azalpena

Bilaketan identifikatutako ebidentziak aukeratzeko edo baztertzeko erabili diren irizpideak zehaztu behar dira. Irizpide horiek esplizituki deskribatu beharko dira eta ebidentziak aukeratzeko eta baztertzeko arrazoiak argi eta garbi ezarrita egon beharko dira. Esate baterako, gidaren egileek ausazko saiakuntza klinikoen ebidentziak baino ez aukeratzea eta ingelesez idatzita ez dauden ikerlanak baztertzea erabaki dezakete.

Non begiratu

Gidaren garapen metodoak deskribatzen diren paragrafo eta kapituluak aztertu. Zenbait kasutan, ebidentzia aukeratzeko barneratze edo baztertze irizpideak beste dokumentu batean edo gidaren eranskin batean deskribatzen dira. Informazio hau aurki daitekeen gidaren atal edo kapitulu ohikoen adibideak honakoak dira: metodoak, bilaketa estrategia, barneratze-baztertze irizpideak eta eranskinak.

Nola Puntuatu

Galdera honen edukiek ondorengo Irizpideak dituzte

- Ebidentzia aukeratzeko irizpideen deskripzioa, hauek barne:
 - Populazio xedearen (pazientea, populazioa, etab.) ezaugarriak
 - Ikerketaren diseinua
 - Konparaketak (aplikagarria bada)
 - Emaitzak
 - Hizkuntza (aplikagarria bada)
 - Testuingurua (aplikagarria bada)
- Baztertzeko irizpidearen deskribapena (garrantzitsua denean; esaterako, *Frantsesez idatzirikoak bakarrik* aukeratzeko irizpideen artean badago, logikoki, ez dira gainontzeko hizkuntzak baztertzeko irizpideen zerrendan sartuko)

Aipamen osagarriak:

- Ondo idatzita al dago galdera? Deskribapenak argiak eta zehatzak al dira?
- Erraz aurki al daiteke galderaren edukia gidan?
- Ba al dago arrazoirik barneratzeko edo baztertzeko aukeratu den irizpidearentzat?
- Barneratzeko edo baztertzeko irizpideak osasun galderarekin bat al datoz?
- Ba al dago arrazoirik bibliografia garrantzitsua kontuan hartu ez dela pentsatzeko?

GIDA EGITERAKOAN ERABILITAKO ZORROZTASUNA

9. Aurkitutako ebidentziaren puntu sendoak eta mugak argitasun osoz deskribatzen dira.

| | | | | | | |
|-------------|---|---|---|---|---|-------------|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| Batere ados | | | | | | Erabat ados |

Azalpenak

Erabiltzailearen eskuliburuaren azalpena

Ebidentziaren alderdi sendoak eta mugak adierazi behar dira. Adibidez, banakako ikerketen alborapen arriskua ebaluatzeko eta deskribatzeko erabili den metodoaren deskribapen zehatza -tresna edo metodo ez-formalak edo formalak medio- adierazi beharko lirateke, Baita emaitzen deskribapenak eta bildutako froga multzoaren inguruko komentario zehatzak ere. Informazio guzti hau era ezberdinetan aurkeztu daiteke, esaterako: kalitatearen eremu ezberdinak azaltzen dituzten taulen bitartez, estrategia edo tresna formalak aplikatuz (ad., Jadad eskala, GRADE metodoa); edo testuan zehar deskripzioak erabiliz.

Non begiratu

Gidaren garapen metodoak deskribatzen diren paragrafo eta kapituluetan aztertu ikerketen kalitate metodologikoaren inguruko informazioa (ad., alborapen arriskua) nola deskribatzen den. Sarri kalitatearen eremu ezberdinak laburbiltzeko ebidentzia taulak erabiltzen dira. Zenbait gidek argi bereizten dituzte frogan deskribapena eta interpretazioa, esaterako, emaitzen atal batean eta eztabaida atalean, hurrenez hurren.

Nola Puntuatu

Galdera honen edukiek ondorengo Irizpideak dituzte

- Ebidentziaren alborapenak aurkitzeko ebaluaketa nola burutu zen eta gidako lantaldeak nola interpretatu zuen deskribatzen da.
- Deskribapenak egiteko alderdien artean honakoak daude:
 - Froga multzoaren oinarri diren ikerketen diseinua(k).
 - Ikerketen muga metodologiak (laginketa, itsutasuna, esleipen ezkatzea, analisi-metodo)
 - kontuan hartutako lehenengo eta bigarren mailako emaitzen egokitasuna edo garrantzia
 - Ikerketen arteko emaitzen sendotasuna
 - Ikerketen arteko emaitzen norabidea
 - Onuren eta kalteen arteko alderaketa/balantzea
 - Aplikagarritasuna proposatutako testuinguruan

Aipamen osagarriak:

- Ondo idatzita al dago galdera? Deskribapenak argiak eta zehatzak al dira?
- Erraz aurki al daiteke galderaren edukia gidan?
- Egokiak, neutralak eta alborapen gabekoak al dira deskribapenak? Osoak al dira deskribapenak?

GIDA EGITERAKOAN ERABILITAKO ZORROZTASUNA

10. Gomendioak garatzeko erabili diren metodoak argi eta garbi deskribatzen dira.

| | | | | | | |
|-------------|---|---|---|---|---|-------------|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| Batere ados | | | | | | Erabat ados |

Azalpenak

Erabiltzailearen eskuliburuaren azalpena

Gomendioak garatzeko erabili diren metodoak eta azken erabakiak nola hartu diren deskribatu beharko da. Metodoen artean esaterako,, bozkatze sistemak, adostasun ez formaleko eta formaleko teknikak (Delphi, Glaser Teknikak...) aurki daitezke. Desadostasun-eremuak eta haiei irtenbidea aurkitzeko metodoak ere espezifikatu beharko dira.

Non begiratu

Gidaren garapen metodoak deskribatzen diren paragrafo eta kapituluak aztertu. Zenbait kasutan gomendioak ezartzeko metodoak beste dokumentu batean deskribatzen dira edo gidaren eranskin batean. Informazio hau aurki daitekeen gidaren atal edo kapitulu ohikoen adibideak honakoak dira: metodoak, gidaren garapen prozesua.

Nola Puntuatu

Galdera honen edukiek ondorengo irizpideak dituzte

- Gomendioak garatzeko prozesuaren deskripzioa (ad., moldatutako Delphi teknikan jarraitutako pausuak, erabilitako bozkatze sistemak).
- Gomendioen garapen prozesuaren emaitzak (ad., norarteko adostasuna lortu zen moldatutako Delphi teknika erabiliz, bozkatze prozesuaren emaitza)
- Prozesuak gomendioetan izandako eraginaren deskribapena (ad., Delphi teknikak azkeneko gomendioetan izandako eraginaren emaitzak,, gomendioen eta azken bozkatzearen arteko adoztea)

Aipamen osagarriak:

- Ondo idatzita al dago galdera? Argiak eta zehatzak al dira deskribapenak?
- Erraz aurki al daiteke galderaren edukia gidan?
- Prozesu formala erabili al zen gomendioak ezartzeko?
- Egokiak izan al dira metodoak?

GIDA EGITERAKOAN ERABILITAKO ZORROZTASUNA

11. Gomendioak garatzerakoan osasun onurak, bigarren mailako eraginak eta arriskuak kontuan hartu dira.

| | | | | | | |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|
| 1 Batere ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Azalpenak

Erabiltzailearen eskuliburuaren azalpena

Gidak gomendioak garatzerako orduan osasun onurak, bigarren mailako eraginak eta arriskuak kontuan hartu behar izan ditu. Esate baterako, bularreko minbiziari buruzko gida batek azken emaitza ezberdinen eragin orokorreari buruzko eztabaida bat eduki beharko du. Emaitzak honako hauek izan daitezke: biziraupena, bizi-kalitatea, aurkako ondorioak, eta sintomen erabilera edo tratamendu bat beste batekin aldaratzen duen eztabaida bat. Gidak aipatutako gaiak kontuan hartuak izan direla nabarmendu behar du.

Non begiratu

Gidaren garapen metodoak deskribatzen diren paragrafo eta kapituluak aztertu, bertan ebidentziaren deskribapena, interpretazioa eta gomendioetarako translazioa adierazi egin den topatzeko. Informazio hau aurki daitekeen gidaren atal edo kapitulu ohikoen adibideak honakoak dira: metodoak, interpretazioa, eztabaida eta gomendioak.

Nola Puntuatu

Galdera honen edukiek ondorengo IRIZPIDEAK dituzte

- Osasun onuren inguruko informazioa eta hauek bermatzen dituzten datuak
- Kalteen/kontrako ondorioen/arriskuen inguruko informazioa eta berme datuak
- Onuren eta kalteen arteko balantzearen informazioa eta berme datuak.
- Gomendioek onuren eta kalteen alderdiak aintzat hartzen dituzte

AIPAMEN osagarriak:

- Ondo idatzita al dago galdera? Argiak eta zehatzak al dira deskribapenak?
- Erraz aurki al daiteke galderaren edukia gidan?
- Eztabaida gida egiteko prozesuaren parte nagusietako bat al da? (ad., gomendioak garatzerakoan sortu da eta ez azkeneko momentuan gomendioak egon ostean)
- Gidako lantaldeak onurak eta kalteak era berean kontuan hartu al ditu?

GIDA EGITERAKOAN ERABILITAKO ZORROZTASUNA

12. Gomendio bakoitzaren eta oinarritzen den ebidentziaren artean harreman esplizitua dago.

| | | | | | | |
|-------------|---|---|---|---|---|-------------|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| Batere ados | | | | | | Erabat ados |

Azalpenak

Erabiltzailearen eskuliburuaren azalpena

Gidak gomendioen eta haien oinarriak diren frogak/ebidentzien arteko lotura zehatza bildu beharko luke. Gidaren erabiltzailea gomendio bakoitzarentzat garrantzitsuak diren froga multzoaren osagaiak identifikatzeko gai izan beharko litzateke.

Non begiratu

Gidako gomendioak eta hauen oinarriak diren frogak deskribatzen direneko testuak aztertu. Informazio hau aurki daitekeen gidaren atal edo kapituluaren adibideak: gomendioak eta froga nagusiak.

Nola Puntuatu

Galdera honen edukiek ondorengo irizpideak dituzte

- Gidako lantaldeak gomendioak garatzeko orduan frogak/ebidentziak nola lotu eta erabili dituen adierazten da.
- Gomendio bakoitza froga edo ebidentzia nagusi baten deskribapenari/paragrafoari edota erreferentzien zerrenda bati dator lotuta
- Gomendioak ebidentzien laburpenei lotuta datoz, gidaren emaitzen atalean ebidentzia- taulak datoz

Aipamen osagarriak:

- Bat al datoz frogak eta gomendioak?
- Erraz aurki al daitezke gomendioen eta dagozkien frogaren arteko loturak gidan?
- Frogaren bat falta denean edo gomendioa gidako lantaldearen iritzian oinarritzen denean frogetan oinarritu ordez, argi azaltzen eta deskribatzen al da hau?

GIDA EGITERAKOAN ERABILITAKO ZORROZTASUNA

13. Gida argitaratu aurretik, kanpoko adituek berraztertu dute

| | | | | | | |
|-------------|---|---|---|---|---|-------------|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| Batere ados | | | | | | Erabat ados |

Azalpenak

Erabiltzailearen eskuliburuaren azalpena

Gida, argitaratu aurretik, kanpotik berraztertu behar da. Berrikusteaz arduratuko diren pertsonak gidako lantaldearekin ez dute inolako zerikusirik izango eta eremu klinikoan adituak diren batzuk eta metodologian adituak diren beste batzuk parte hartuko dute. Xede-populazioaren (gaixoak, publikoa) ordezkaririk ere sar daitezke. Kanpoko berrikustea egiteko erabili den metodologiaren deskribapen bat agertu beharko da, eta aztertzaileen zerrenda bat eta euren afiliazioa zein den ere aipa daitezke.

Non begiratu

Gidaren metodoak deskribatzen diren paragrafo eta kapituluak eta esker onen atala aztertu. Informazio hau aurki daitekeen gidaren atal edo kapituluaren adibideak: metodoak, emaitzak eta eskerrak.

Nola Puntuatu

Galdera honen edukiek ondorengo irizpideak dituzte

- Kanpoko berrikustearen asmo eta intentzio (ad. kalitate hobekuntza, zirriborroko gomendioei buruzko iritzia biltzea, ezagarratasuna eta bideragarratasuna aztertzea, frogak hedatzea)
- Kanpoko berrikustea burutzeko erabili diren metodoak (adibidez, neurtzeko eskalak, erantzun zabaleko galderak)
- Kanpo-berrikusleen deskribapena (esaterako: kopurua, berrikusle mota, kidetza)
- Kanpo-berrikustearekin bildutako emaitzak/informazioa (aurkikuntza nagusien laburpena, esaterako)
- Bildutako informazioa gida garatzeko prozesuan eta gomendioak egiterakoan nola erabili zen deskribatzea (ad. gidako lantaldeak azken gomendioen garapenerako berrikustearen emaitzak kontuan hartu ditu).

Aipamen osagarriak:

- Ondo idatzita al dago galdera? Deskribapenak argiak eta zehatzak al dira?
- Erraz aurki al daiteke galderaren edukia gidan?
- Gidaren aplikazio eremurako aproposak eta egokiak al dira kanpo-berrikusleak? Arrazoirik ematen al du erabili diren berrikusleak aukeratzeko?
- Gidako lantaldeak kanpoko berrikusleek emandako informazioa nola erabili zuen deskribatzen da?

GIDA EGITERAKOAN ERABILITAKO ZORROZTASUNA

14. Gidak eguneratze prozedura dakar.

| | | | | | | |
|-------------|---|---|---|---|---|-------------|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| Batere ados | | | | | | Erabat ados |

Azalpenak

Erabiltzailearen eskuliburuaren azalpena

Gidek eguneratutako ikerketaren adierazgarri izan behar dute. Gidaren eguneratze prozedurari buruzko adierazpen argiren bat eman beharko luke. Esate baterako, kronograma bat adierazi edo lantaldea iraunkor bat ezarri daiteke bilaketa bibliografikoaren aldizkako eguneratzeak jaso eta beharrezkoak diren aldaketak burutzeko.

Non begiratu

Sarrerako pasartea, gidaren garapen prozesua deskribatzen duen pasartea eta bukaerako pasarteak aztertu. Informazio hau aurki daitekeen gidaren atal edo kapituluaren adibideak: metodoak, gidaren gaurkotzea edo eguneratzea eta gidaren data.

Nola Puntuatu

Galdera honen edukiek ondorengo irizpideak dituzte

- Gida eguneratuko denaren adierazpena
- Eguneratzea noiz egingo den erabakitze epea edo irizpideak zehazten ditu
- Eguneratze-prozesua burutzeko metodologia badator

Aipamen osagarriak:

- Ondo idatzita al dago galdera? Deskribapenak argiak eta zehatzak al dira?
- Erraz aurki al daiteke galderaren edukia gidan?
- Eguneratzea noiz egingo den edo horretarako kontuan hartuko diren irizpideak ezagutzeko nahikoa informazio al dator gidan?

4. EREMUA. ARGITASUNA ETA AURKEZPENA

15. Gomendioak espezifikoak dira eta ez dira zalantzazkoak.
16. Gaixotasuna edo osasun-egoera tratatzeko dauden aukera ezberdinak argi eta garbi azaltzen dira.
17. Gomendio giltzarriak erraz identifikatzen dira.

ARGITASUNA ETA AURKEZPENA

15. Gomendioak espezifikoak dira eta ez dira zalantzazkoak.

| | | | | | | |
|-------------|---|---|---|---|---|-------------|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| Batere ados | | | | | | Erabat ados |

Azalpenak

Erabiltzailearen eskuliburuaren azalpena

Gomendio batek, dauden ebidentzietan oinarrituz, zein neurri den egokiena, zein egoeratan eta zein paziente-taldetan, zehatz-mehatz deskribatu beharko du.

- Hauxe izango litzateke gomendio espezifiko baten adibidea: Antibiotikoak erdiko otitis akutua duten bi urte edo gehiago duten umeei agindu behar zaizkie minak hiru egun baino gehiago irauten badu edo kontsultara joan ondoren ondoezak txarrera egiten badu nahiz eta analgesikoen tratamendu egokia eman. Kasu hauetan amoxicilina 7 egunetan eman beharko zaio pazienteari (hemen dosifikazio-lauki bat gaineratzen da).
- Hauxe izango litzateke zalantzazko gomendio baten adibidea: Antibiotikoak eboluzioa anormala edo korapilatsua denean hartu behar dira.

Garrantzitsua da kontuan hartzea zenbait kasutan frogak ez direla argi azaltzen eta zaintza onena eskaintzeko aukeraren inguruan zalantzak sor daitezkeela. Kasu horretan ziurgabetasunak esplizituki adierazi beharko dira Gidan.

Non begiratu

Gidaren gomendioak zehaztu eta aztertu. Informazio hau aurki daitekeen gidaren atal edo kapituluaren adibideak: gomendioak eta laburpen nagusia.

Nola Puntuatu

Galdera honen edukiek ondorengo irizpideak dituzte

- Gomendatutako ekintzaren adierazpena
- Gomendatutako ekintzaren xedearen edo helburuaren identifikazioa (adibidez, bizi-kalitatea hobetzea, alboko efektuak murriztea e.a.)
- Dagokion populazioa identifikatzea (esaterako, gaixoak, publikoa)
- Oharrak edo ñabardurak dagokienean (esaterako, gomendioak aplikatuko ez zaizkien gaixoak edo haien baldintza bereziak)

Aipamen osagarriak:

- Gomendio asko daudenean (ad., kudeaketako gidak), argi al dago gomendio bakoitza nori aplikatu beharko zaion?
- Froga interpretatzeko eta eztabaidatzerako orduan zalantzak badaude, zalantza horiek gomendioetan islatu eta argi adierazi al dira?

ARGITASUNA ETA AURKEZPENA

16. Gaixotasuna edo osasun-egoera tratatzeko dauden aukera ezberdinak argi eta garbi azaltzen dira.

| | | | | | | |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|
| 1 Batere ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Azalpenak

Erabiltzailearen eskuliburuaren azalpena

Gaixotasun baten tratamendua helburutzat duen gidak haren jarraipena, prebentzioa, diagnostia edo tratamendua egiteko aukera ezberdinak kontuan hartu behar ditu. Aukera posible horiek gidan argi eta garbi aurkeztu beharko dira.

Esate baterako, depresioari buruzko gomendio batek honako alternatiba hauek barne hartu behar ditu:

- Antidepressibo triziklikoekin egindako tratamendua.
- SBISren bidez egindako tratamendua.
- Psikoterapia.
- Terapia farmakologikoen eta psikoterapiaren arteko konbinazioa.

Non begiratu

Gomendioak eta haien oinarriak diren frogak aztertu. Gidan informazio hau aurki daitekeen gidaren atal edo kapituluaren adibideak: laburpen nagusia, gomendioak, eztabaida, tratamendu ezberdinak, eta ordezkoko beste tratamendu batzuk.

Nola Puntuatu

Galdera honen edukiek ondorengo irizpideak dituzte

- Tratamendu aukeren deskribapena
- Tratamendu aukera bakoitzarentzat egokiena izango litzatekeen populazioa edo egoera klinikoaren deskribapena

Aipamen osagarriak:

- Ongi al dago idatzita galdera? Deskribapenak argiak eta zehatzak al dira?
- Erraz aurki al daiteke galderaren edukia gidan?
- Testuinguru zabala edo estua duen gida al da? Baliteke item hau garrantzitsuagoa izatea testuinguru zabaleko gidetan (gida gaixotasunaren arreta osoaren ingurukoa denean, gaixotasunaren inguruko ekintza zehatzetan bakarrik oinarritu ordeztu).

ARGITASUNA ETA AURKEZPENA

17. Gomendio giltzarriak erraz identifikatzen dira.

| | | | | | | |
|-------------|---|---|---|---|---|-------------|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| Batere ados | | | | | | Erabat ados |

Azalpenak

Erabiltzailearen eskuliburuaren azalpena

Erabiltzaileek gomendio aipagarrienak erraz aurkitu ahal izango dituzte. Gomendio horiek gidan aipaturako arazo-kliniko nagusiekin bat datoz. Modu ezberdinetan identifika daitezke. Esate baterako, laukitxo batean labur daitezke, letra lodiz idatzi, azpimarratu edo fluxu-diagramen edo algoritmoen bidez aurkez daitezke.

Non begiratu

Gomendioak eta haien oinarriak diren frogak aztertu. Informazio hau aurki daitekeen gidaren atal edo kapituluaren adibideak: laburpen nagusia, ondorioak eta gomendioak. Zenbait gidatan, gomendio nagusiak beste laburpen batean biltzen dituzte (erreferentziarako gida-azkarrak, adibidez).

Nola Puntuatu

Galdera honen edukiek ondorengo irizpideak dituzte

- Gomendioak laburpen-taula batean deskribatu dira, letra lodiz, azpimarratuta, edo diagramatan edo algoritmotan
- Gomendio zehatzak atal bakarrean bilduko dira

Aipamen osagarriak:

- Ongi al dago idatzita galdera? Deskribapenak argiak eta zehatzak al dira?
- Erraz aurki al daiteke galderaren edukia gidan?
- Behar bezala aukeratu al dira gomendio nagusiak? Gidako mezu nagusiak islatzen al dituzte?
- Gomendio zehatzak froga nagusiaren laburpenetik hurbil dagoen atal batean multzokatu al dira?

5. EREMUA. APLIKAGARRITASUNA

18. Gidak bere gomendioak ezartzeko (praktikan jartzeko) dauden erraztasunak eta oztopoak deskribatzen ditu.
19. Gidak gomendioak ezartzen laguntzeko aholkuak edo tresnak eskaintzen ditu.
20. Gomendioak ezartzeko orduan egon daitezkeen baliabideen beharrak kontuan hartu dira.
21. Gidak jarraipena edo/eta auditoriak egiteko irizpideak eskaintzen ditu.

APLIKAGARRITASUNA

18. Gidak bere gomendioak ezartzeko (praktikan jartzeko) dauden erraztasunak eta oztopoak deskribatzen ditu.

| | | | | | | |
|-------------------|---|---|---|---|---|------------------|
| 1 Baterer ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|-------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Azalpenak

Erabiltzailearen eskuliburuaren azalpena

Gomendioen ezarpenak zerbitzu edo unitate baten barruan gaur egungo asistentziaren antolaketan aldaketak eska ditzake. Aldaketa horiek, bestalde, eguneroko praktikan erabiltzeko orduan oztopo bat izan daitezke. Gomendioak ezartzeko beharrezkoak izan daitezkeen antolaketari buruzko aldaketak eztabaidatu behar dira. Esate baterako:

- Garuneko hodietako istripuei buruzko gida batek, osasun-arreta iktus-unitateen eta iktus-zerbitzuen bitartez koordinatua izan dadila gomenda dezake.
- Diabetesari buruzko lehen mailako arretako gidak pazienteak diabetesean espezializatuta dauden unitate klinikoetan aztertuak eta jarraituak izan daitezela eska dezake. Baliteke ekintza kliniko hauek aurrera eramateko sendagile nahikorik ez egotea eskualdean

Non begiratu

Gidaren ezarpen/inplementazio kapituluak edo, eskura izanez gero, gida inplementatzeko egitasmo edo estrategia zehatzak dituzten dokumentu osagarriak ere irakurri. Informazio hau aurki daitezkeen gidaren atal edo kapituluaren adibideak: oztopoak, gidaren erabilera eta kalitate adierazleak.

Nola Puntuatu

Galdera honen edukiek ondorengo irizpideak dituzte

- Kontuan hartu diren faktore bideratzaile eta eta oztopo moten identifikazioa
- Gomendioak ezartzeko orduan egon daitezkeen faktore bideratzaileei eta oztopoei buruzko informazioa bilatzeko erabilitako metodoak (inplikatu nagusietatik jasotako informazioa, inplementazioa hedatu aurretik egindako proba pilotuak, e.a.)
- Bilaketan aurkitutako faktore bideratzaile eta oztopoen informazioa eta deskribapena (adib. profesionalen gomendatutako tratamendua eskaintzeko beharrezko jakintza daukate, mamografia biztanleri osorako ziurtatzeko ez dago ekipo nahikorik)
- Gidaren eta gomendioen garapenean informazio honek izan duen eragina deskribatzea.

Aipamen osagarriak:

- Ongi al dago idatzita galdera? Deskribapenak argiak eta zehatzak al dira?
- Erraz aurki al daiteke galderaren edukia gidan?
- Gidak aipatzen al ditu oztopoak gainditzeko estrategia zehatzak?

APLIKAGARRITASUNA

19. Gidak gomendioak ezartzen laguntzeko aholkuak edo tresnak eskaintzen ditu.

| | | | | | | |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|
| 1 Batere ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Azalpenak

Erabiltzailearen eskuliburuaren azalpena

Gida bat eraginkorra izan dadin material gehigarrien bidez hedatua eta ezarria izan beharko da. Material horiek honako hauek izan daitezke: laburpen-dokumentu bat, azkar kontsultatzeko gida bat, hezkuntza tresnak, pazienteentzako liburuxkak edo euskarri informatikoa. Aipatutako materialak gida klinikoarekin batera eman beharko dira.

Non begiratu

Gidaren hedapen/inplementazio kapituluak edo, eskura izanez gero, gida inplementatzeko egitasmo edo estrategia zehatzak dituzten dokumentu osagarriak ere irakurri. Informazio hau aurki daitekeen gidaren atal edo kapituluaren adibideak: tresnak, iturriak, inplementazioa eta eranskinak.

Nola Puntuatu

Galdera honen edukiek ondorengo irizpideak dituzte

- Inplementazioari buruzko atala gidan
- Ezarpena errazteko tresnak eta baliabideak:
 - Gidaren laburpen dokumentuak
 - Egiatzen zerrendetarako loturak, algoritmoak
 - Laguntza esku-liburuaren estekak
 - Oztopen analisiarekin erlazionatutako irtenbideak (ikus 18. galdera)
 - Gidaren faktore lagungarriei onura ateratzeko tresnak (ikus 18. galdera)
 - Proba pilotuaren eta ikasitakoaren emaitzak (begiratu 18. galdera)
 - Erabiltzaileak tresna eta baliabide ezberdinetara heltzeko argibideak

Aipamen osagarriak:

- Ongi al dago idatzita galdera? Deskribapenak argiak eta zehatzak al dira?
- Erraz aurki al daiteke galderaren edukia gidan? Galdera ondo idatzita al dago? Deskribapenak argiak eta zehatzak al dira?
- Ba al dakar inplementatzeko tresnen eta berresteko prozeduren garapenaren inguruko informaziorik?

APLIKAGARRITASUNA

20. Gomendioak ezartzeko orduan egon daitezkeen baliabideen beharrak kontuan hartu dira.

| | | | | | | |
|-------------|---|---|---|---|---|-------------|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| Batere ados | | | | | | Erabat ados |

Azalpenak

Erabiltzailearen eskuliburuaren azalpena

Gomendioek, ezarriak izan daitezen, baliabide osagarriak eska ditzakete. Esate baterako, espezializatutako profesional gehiago, ekipamendu berria edo garestiak diren tratamendu farmakologikoak.. Horrek osasun sistemen finantzaketan ondorioak izan ditzake. Gidak osasun baliabideetan izan dezakeen eraginari buruzko eztabaida jaso beharko du.

Non begiratu

Gidaren hadapen/inplementazio kapituluak edo, eskura izanez gero, gida inplementatzeko egitasmo edo estrategia zehatzak dituzten dokumentu osagarriak ere irakurri. Zenbait gidek, ebidentzia deskribatzen den paragrafoetan edo gomendioen ostean, proposatutako ekintzek gastuetan izan dezaketen eraginaren inguruko eztabaida aurkezten dute. Informazio hau aurki daitezkeen gidaren atal edo kapituluaren adibideak: metodoak, kostu-erabilgarritasuna, kostu-eraginkortasuna, eskuraketa kostuak eta aurrekontuen eragina.

Nola Puntuatu

Galdera honen edukiek ondorengo irizpideak dituzte

- Kontuan hartu diren kosteei buruzko informazio motak identifikatzea (ebaluazioa ekonomikoa, sendagaiak erosteko kosteak, adibidez))
- Kosteei buruzko informazioa biltzeko erabilitako metodoak (osasun ekonomista bat dago gida egin dutenen artean, zenbait sendagairentzat osasun teknologien ebaluazioa egin da, e.a.)
- Ikerketaren ondorioz sortu den kosteari buruzko informazioa eta haren deskribapena (sendagai zehatz bat erosteak eragindako kosteak tratamendu bakoitzeko, adibidez)
- Bildutako informazioak gidaren edo/eta gomendioen garapenari nola eragin dion deskribatzen da

AIPAMEN osagarriak:

- Ongi al dago idatzita galdera? Deskribapenak argiak eta zehatzak al dira?
- Erraz aurki al daiteke galderaren edukia gidan?
- Kostuen inguruko informazioaren bilaketan eta analisisian aditu egokiek parte hartu al zuten ?

APLIKAGARRITASUNA

21. Gidak jarraipena edo/eta auditoriak egiteko irizpideak eskaintzen ditu.

| | | | | | | |
|-------------|---|---|---|---|---|-------------|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| Batere ados | | | | | | Erabat ados |

Azalpenak

Erabiltzailearen eskuliburuaren azalpena

Gidako gomendioen aplikazioa neurtzeak, haiek etengabe erabiltzen lagun dezake. Horretarako, beharrezko da oinarrizko gomendioetatik eratorritako irizpide argiak izatea. Irizpideen artean prozesuen neurketak, jarreraren neurketak eta emaitza kliniko zein osasun emaitzen neurketak izan ditzakegu, besteak beste. Jarraipena egiteko irizpideen hainbat adibide ondoko hauek dira:

- HbA1c < % 8,0 izan beharko luke.
- Tentsio arterial diastolikoaren maila 95 mmHg baino baxuagokoa izan beharko du:
- 50 urtekoen % 80k jaso beharko lituzke kolon-ondesteko minbizi baheketa probak, gorozkietan dagoen odolaren azterketa probak hain zuzen.
- Erdiko otitis akutuak sortutako ondoezak hiru egun baino gehiago irauten baldin badu amoxicilina bidezko tratamendua agindu beharko da.

Non begiratu

Gidaren hedapen/inplementazio kapituluak edo, eskura izanez gero, gida inplementatzeko egitasmo edo estrategia zehatzak dituzten dokumentu osagarriak ere irakurri. Informazio hau aurki daitekeen gidaren atal edo kapituluaren adibideak: gomendioak, kalitate adierazleak eta ikuskapenaren irizpideak.

Nola Puntuatu

Galdera honen edukiek ondorengo irizpideak dituzte

- Gidaren inplementazioa edo gomendioen jarraipena ebaluatzeko irizpideak identifikatzea
- Gomendioak inplementatzearen eragina ebaluatzeko irizpideak
- Neurketen maiztasunari edo tarteei buruzko aholkua
- Irizpideak nola neurtu beharko liratekeen deskribatzea edo definizio operatiboak ematea.

Aipamen osagarriak:

- Ongi al dago idatzita galdera? Deskribapenak argiak eta zehatzak al dira?
- Erraz aurki al daiteke galderaren edukia gidan?
- Prozesu-neurketak, jarrera-neurketak eta osasun emaitzak sartu al dira irizpideen artean?

6. EREMUA ARGITARATZEKO ASKATASUNA

22. Finantzaketa erakundearen ikuspuntuek ez dute eraginik izan gidaren edukian.
23. Gidaren lantaldeko kideen interes-gatazkak erregistratu eta adierazi dira.

ARGITARATZEKO ASKATASUNAK

22. Finantzaketa erakundearen ikuspuntuak ez dute eraginik izan gidaren edukian

| | | | | | | |
|-------------|---|---|---|---|---|-------------|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| Batere ados | | | | | | Erabat ados |

Azalpenak

Erabiltzailearen eskuliburuaren azalpena

Gida batzuk kanpoko finantzaketa bitartez garatzen dira (esate baterako gobernuetako diru-funtsa, Gobernu Kanpoko Erakundeak, farmazia-konpainiak). Laguntza gida osoaren garapenerako, edo zatiren batentzako (esaterako gidak inprimatzeko), finantza-ekarpen bat izan daiteke. Finantzatzen dutenen ikuspegiak edo interesak azken gomendioetan eraginik izan ez dutela aitortzen duen adierazpen esplizitu bat egon beharko da.

Non begiratu

Gidaren garapen prozesua eta esker onen ataleko lerroalde/kapituluak aztertu. Informazio hau aurki daitekeen gidaren atal edo kapituluaren adibideak: finantziario iturriak eta lege-oharra edo erantzukizun-mugak.

Nola Puntuatu

Galdera honen edukiek ondorengo irizpideak dituzte

- Finantzaketa-erakundearen izena edo finantzario-iturriarena (edo finantzaziorik jaso ez denaren adierazpena)
- Finantzaketa-erakundeak gidaren edukian eraginik izan ez duenaren adierazpena

Aipamen osagarriak:

- Ongi al dago idatzita galdera? Deskribapenak argiak eta zehatzak al dira?
- Erraz aurki al daiteke galderaren edukia gidan?
- Zer egin zuen gidako lantaldeak finantzaketa erakundeak gidaren garapenean izan lezakeen eraginari aurre egiteko?

ARGITARATZEKO ASKATASUNAK

23. Gidaren lantaldeko kideen interes-gatazkak erregistratu eta adierazi dira.

| | | | | | | |
|---------------------------|----------|----------|----------|----------|----------|-------------------------|
| 1 Baterako ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|---------------------------|----------|----------|----------|----------|----------|-------------------------|

Azalpenak

Erabiltzailearen eskuliburuaren azalpena

Zenbait egoeratan gidaren lan-taldeko kideek interes-gatazkak izan ditzakete. Esate baterako, gidaren gaiari buruzko ikerketa farmazia-konpainia batek ere finantzatzen duenean. Taldekide guztiek aitortutako interes-gatazken inguruko adierazpen esplizitu bat egon beharko da.

Non begiratu

Gidaren garapen-taldeko deskribapena aurkezten duten lerroalde/kapituluak edo esker onen atala aztertu. Informazio hau aurki daitekeen gidaren atal edo kapituluaren adibideak: metodoak, interes-gatazkak, gidako lantaldea eta eranskinak.

Nola Puntuatu

Galdera honen edukiek ondorengo irizpideak dituzte

- Interes-gatazka moten deskribapena kontuan izan da
- Interes-gatazka potentzialak bilatzeko erabili diren metodoak
- Interes-gatazken deskribapena
- Gidaren eta gomendioen garapenean interes-gatazkek izandako eraginaren deskribapena .

Aipamen osagarriak:

- Ongi al dago idatzita galdera? Deskribapenak argiak eta zehatzak al dira?
- Erraz aurki al daiteke galderaren edukia gidan?
- Gidaren eta gomendioen garapenean interes-gatazken eragina gutxitzeko zein neurri hartu ziren azaltzen al da?

GIDAREN EBALUAZIO OROKORRA

III. GIDAREN EBALUAZIO OROKORRA

Galdera bakoitzeko, mesedez aukeratu gidarekin hobeto egokitzen den erantzuna:

1. Gida honen kalitate orokorra neurtu

| | | | | | | |
|---|----------|----------|----------|----------|----------|--|
| 1 Kalitate gutxieneko aukera | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Kalitate handieneko aukera |
|---|----------|----------|----------|----------|----------|--|

2. Gida hau erabiltzea gomendatuko nuke

| | |
|------------------|--|
| Bai | |
| Bai, aldaketekin | |
| Ez | |

OHARRAK

Erabiltzailearen eskuliburuaren azalpena

Azterketa orokorra burutzeko AGREE II-ren erabiltzaileak gidaren kalitatearen inguruko hausnarketa egitera behartzen du, horretarako ebaluazio prozesuan aztertutako irizpideen kalifikazioa kontuan hartuko ditu

AGREE II TRESNA

1. EREMUA. NORAINOKOA ETA XEDEA

1. Gidak d(it)uen helburu orokorra(k) zehazki deskribatuta dago/ daude

| 1 Batere ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Iruzkina

2. Gidak batzen d(it)uen alderdi klinikoa(k) zehazki deskribatuta dago/daude.

| 1 Batere ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Iruzkina

3. Gida zein (gaixoak, publikoa, e.a.) populaziori aplikatu nahi zaion zehazki deskribatuta dago.

| 1 Batere ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Iruzkina

2. EREMUA. INTERESATUEN PARTE-HARTZEA

4. Gidako lantaldea lanbide-talde garrantzitsu guztietako pertsonak osatzen dute.

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
|-------------|---|---|---|---|---|-------------|
| Batere ados | | | | | | Erabat ados |

Iruzkina

5. Xede- populazioaren (gaixoak, publikoa, e.a.) ikuspegiak eta lehentasunak bilatu dira.

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
|-------------|---|---|---|---|---|-------------|
| Batere ados | | | | | | Erabat ados |

Iruzkina

6. Gidaren xede-erabiltzailea(k) ze(intzuk) d(ir)en argi eta garbi definituta dago.

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
|-------------|---|---|---|---|---|-------------|
| Batere ados | | | | | | Erabat ados |

Iruzkina

3. EREMUA. GIDA EGITERAKOAN ERABILITAKO ZORROZTASUNA

7. Ebidentzia bilatzeko metodo sistematikoak erabili dira.

| 1 Batere ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Iruzkina

8. Ebidentzia aukeratzeko irizpideak argitasun osoz deskribatzen dira.

| 1 Batere ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Iruzkina

9. Aurkitutako ebidentziaren puntu sendoak eta mugak argitasun osoz deskribatzen dira.

| 1 Batere ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Iruzkina

3. EREMUA. GIDA EGITERAKOAN ERABILITAKO ZORROZTASUNA

10. Gomendioak garatzeko erabili diren metodoak argi eta garbi deskribatzen dira.

| 1 Batere ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Iruzkina

11. Gomendioak garatzerakoan osasun onurak, bigarren mailako eraginak eta arriskuak kontuan hartu dira.

| 1 Batere ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Iruzkina

12. Gomendio bakoitzaren eta oinarritzen den ebidentziaren artean harreman esplizitua dago.

| 1 Batere ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Iruzkina

3. EREMUA. GIDA EGITERAKOAN ERABILITAKO ZORROZTASUNA

13. Gida argitaratu aurretik, kanpoko adituek berraztertu dute.

| 1 Batere ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Iruzkina

14. Gidak eguneratze prozedura dakar.

| 1 Batere ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Iruzkina

4. EREMUA. ARGITASUNA ETA AURKEZPENA

15. Gomendioak espezifikoak dira eta ez dira zalantzakook.

| 1 Batere ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Iruzkinak

16. Gaixotasuna edo osasun-egoera tratatzeko dauden aukera ezberdinak argi eta garbi azaltzen dira.

| 1 Batere ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Iruzkinak

17. Gomendio giltzarriak erraz identifikatzen dira.

| 1 Batere ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Iruzkinak

5. EREMUA. APLIKAGARRITASUNA

18. Gidak bere gomendioak ezartzeko (praktikan jartzeko) dauden erraztasunak eta oztopoak deskribatzen ditu.

| 1 Batere ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Iruzkina

19. Gidak gomendioak ezartzen laguntzeko aholkuak edo tresnak eskaintzen ditu.

| 1 Batere ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Iruzkina

20. Gomendioak ezartzeko orduan egon daitezkeen baliabideen beharrak kontuan hartu dira.

| 1 Batere ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Iruzkina

21. Gidak jarraipena edo/eta auditoriak egiteko irizpideak eskaintzen ditu.

| 1 Batere ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Iruzkina

6. EREMUA. ARGITARATZEKO ASKATASUNA

22. Finantzaketa erakundearen ikuspuntuek ez dute eraginik izan gidaren edukian

| 1 Batere ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Iruzkinak

23. Gidaren lantaldeko kideen interes-gatazkak erregistratu eta adierazi dira.

| 1 Batere ados | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Erabat ados |
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|
|------------------|---|---|---|---|---|------------------|

Iruzkinak

GIDAREN EBALUAZIO OROKORRA

Galdera bakoitzeko, mesedez aukeratu gidarekin hobeto egokitzen den erantzuna:

1. Gida honen kalitate orokorra neurtu

| | | | | | | |
|---|----------|----------|----------|----------|----------|--|
| 1 Kalitate gutxieneko aukera | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 Kalitate handieneko aukera |
|---|----------|----------|----------|----------|----------|--|

2. Gida hau erabiltzea gomendatuko nuke

| | |
|------------------|--|
| Bai | |
| Bai, aldaketekin | |
| Ez | |

OHARRAK

Edizioa:



AGREE II Tresnaren euskara itzulpena jarrian agertzen diren instituzioen dirulaguntzari esker burutu zen:

